



Txosten ekonomikoa: Foru Dekretu Arau Proiektua, Sozietateen gaineko Zergan, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta zerga berezietan aldaketak sartzen dituen.

Txosten honetan aztertzen da zenbateko eragina izango duen Gipuzkoako Foru Ogasunaren zergabilketanaren ...(e)ko/2011 Foru Dekretu Arauaren Proiektuak, zeinaren helburua baita Estatuko araudian sartutako aldaketak Gipuzkoako zerga araudira ekartzea arau substantibo eta formal berberak aplika daitezen.

Lurralde erkidean onartu diren martxoaren 4ko 2/2011 Legeak, Ekonomia Iraunkorrari buruzkoak, eta maiatzaren 27ko 13/2011 Legeak, jokia arautzen duenak, aldaketa puntualak sartu dituzte Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, Balio Erantsiaren gaineko Zergan eta Zerga Berezietan. Bere aldetik, abuztuaren 19ko 9/2011 Errege Dekretu Legeak, osasun sistema nazionalaren kalitatea eta kohesioa hobetzeko neurriak ezarri, zergen baterakuntzari lagundu, eta Estatuko abalen gehieneko zenbatekoa 2011rako igotzekoak, finkatuta utzi du 2011ko abuztuaren 20tik abenduaren 31 bitartean ondasun higiezinak etxebizitza gisa erabiltzeko saltzen direnean %4ko zerga tasa aplikatuko dela. Eta azkenik, otsailaren 18ko 2/2011 Errege Lege Dekretuak, finantza sistema indartzen duenak, talde fiskala, sozietate nagusia eta mendeko sozietatearen kontzeptuak aldatzen ditu.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Ituna onartzen duenak, 21., 26. eta 33. artikuluetan hurrenez hurren jasotzen duenez, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta zerga bereziak tributu itunduak dira. Zerga horietan lurralde historikoetako erakunde eskudunak behartuta daude Estatuak une bakoitzean ezarritako edukizko



eta formazko arau berberak aplikatzera, salbuespen bat eginda: egoitza atzerrian duten pertsona edo entitateek Euskal Autonomia Erkidegoan dituzten establezimendu iraunkorren Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan, establezimendu horiei Sozietateen gaineko Zergaren araudi autonomoa aplikatuko zaie. Bestalde, Ekonomi Itunaren 20.Bi.1 artikulua ezartzen du talde fiskala, sozietate nagusia eta mendeko sozietatearen kontzeptuak Estatuak araututakoekin berdinak izan behar direla. Horrek beharrezko egiten du aipatutako araudietan jasota dauden aldaketak Gipuzkoako zerga araudira ekartzea.

Proiektu honetan jasotako aldaketa gehienek izaera tekniko nabarmena dutenez, eragin txiki-txikia izango dute zergabilketan. Nolabaiteko pisua izan dezakeen neurri bakarra etxebizitzarako ondasun higiezinaren entregetarako karga tasaren aldaketari buruzkoa da.

Zergabilketa eragina

BEZaren karga tasa murriztearen helburua higiezinaren sektorearen jarduera sustatzea da, horretarako kontsumitzaileen erosketa-erabakiak aurreratuta. Horren ondorioz, hasiera batean, zergabilketa jaitsiko litzateke. Baina, baldin eta neurri horren bidez ondasun higiezinaren salmenta nabarmen handitzea lortuko balitz, jarduera tasa handiagoa lortuko litzateke higiezinaren sektorean, eta horrek azkenean zergabilketa hobetzea ekarriko luke.

Zergabilketa eraginaren tamaina kontsumitzaileek BEZaren karga tasaren murrizpenari ematen dioten erantzun mailaren araberakoa izango da.

Argibide gisa, hona hemen nolako bilakaera izan duen azken urteetan etxebizitzaren BEZaren bilketak:



BEZ (%8)	
2008	87.839.864
2009	64.657.786
2010	61.437.882
2011 (*)	19.918.503

(Eurotan)

(*) Uztailaren 31ra bitarteko
datuak

2011ko uztailaren 31ko datuak kontuan hartuta, eta salmenten bilakaerak urteko lehen zazpi hilabeteetako joera bera izango balu, zergabilketa 5,6 milioi euro jaitsiko litzateke. Nolanahi ere, eta neurriak etxebizitzaren salmenta pixka bat igoaraziko duelakoan, amaierako zergabilketa ondorioa txikiagoa izango litzateke zenbateko hori baino.

Genero eraginaren txostenaren oinarriak eta xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoan onartuta dagoen otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, gizon eta emakumeen berdintasunerakoak, 6. artikuluan dio foru administrazioei dagokiela foru legeria nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako printzipioaren arabera. Era berean, uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 70. artikuluan ezartzen du ezen foru arauen aurreproiektuak eta xedapen orokorren proiektuak egiteko prozeduran, nahitaez, genero eraginari buruzko txosten bat aurkeztu beharko dela eranskin gisa.



Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren barruan ohiko etxebizitzako murrizpenari buruzko datuak aztertuta, agerian geratzen da kenkari horren aplikazioa proportzional samarra dela emakume eta gizonen artean, haien aitortutako errentei dagokienez. Beraz, etxebizitzari aplikagarria zaien BEZaren karga tasaren murrizpena ez doa gizon eta emakumeen arteko berdintasun printzipioaren aurka.

Nolanahi, eta izaera orokorrean, emakumeen errenta maila txikiagoa dutenez, zailtasun gehiago dute etxebizitza eskuratzeko. Hori dela eta, etxebizitzaren alokairua sustatzeko neurriak emakumeen aldekoagoak izango lirateke eta desberdintasunak txikiagotuko lirateke.

Donostia, 2011ko irailaren 7a

AZTERLANETAKO ATALBURUA

ONIRITZIA

ERAKUNDEEKIKO KONPROMISOEN ZERBITZUBURUA